

HARREMANAK

Gure enpresak bezeroekin edukiko duen harreramari dagokionez, bi motatakoa izango da. Batetik, aurrez aurreko harreman pertsonala, eta bestetik, online harreman pertsonala.

Aurrez aurreko harreman pertsonalari dagokionean, gure kasuan farmaziak izango dira harreman zuzena edukiko dutenak, pultserak bertan salduko direlako. Farmaziako langileak, hau da, pultsera salduko duenak, produktuari buruzko jakintza izango duenez, bezeroak edozein zalantza edukita, farmaziako langileak emango lioke erantzuna.

Online harreman pertsonalari dagokionez ordea, webgune bat izango dugu. Honetan, produktuaren informazio guztia egoteaz gain, bezeroak dituen galderak egiteko laguntza txoko bat egongo da, haien galdera guztiak pertsonalki argitzeko. Hala, bezeroak galderaren bat egin bezain laster, langile batek, gutako batek alegia, emango dio bere galderari erantzuna ahalik eta modu azkarrenen.